



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2007ko ekainaren 13ko aparteko bilera**

BERTARATU DIRENAK:

JARDUNEKO ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EZ DIRA BERTARATU, ARRAZOIA AZALDUTA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYA jn.

KONTU-HARTZAILEA

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta zazpiko ekainaren hamahiruko eguerdiko ordu bata dela, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da aparteko bilera egiteko. **Jarduneko alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGÜENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, aparteko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

1.- JARRAIAN ADIERAZI DIREN EGUNETAKO BILEREN AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, HALA BADAGOKIO: 2007ko MARTXOAREN 28koa (OHIKO BILERA), 2007ko APIRILAREN 27koa (OHIKO BILERA) ETA 2007ko APIRILAREN 28koa (APARTEKO BILERA): Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 36.1 artikuluan xedatutakoa betez, Udalburutzak galdetu du ia oharren bat egin nahi zaien epigrafean adierazitako aktei eta, inork ez duenez oharrik egin, aho batez onetsi dira.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez** erabaki du onetsi egingo direla 2007ko martxoaren 28ko ohiko bileraren, 2007ko apirilaren 27ko ohiko bileraren eta 2007ko apirilaren 28ko aparteko bileraren aktak.

Eta eguerdiko ordu bata eta hogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.
JARDUNEKO ALKATEA

IDAZKARIA,